

# ANAITASUNA

## Cardijn Kardenala Gaztea da

Eleizak dauzan gizon ospetsuen bat Cardijn kardenala dogu gaur. Bere aita langillearen gorpu-aurrean langille gazteen aldezlari izatea erabagi eban. Arrezkero bere abotsa lurreko langille guztiekana zabaldu da. Aita Santu Paulo VI'garrenak kardenaltzara iaso ebanean abarrots ikaragarria sortu zan alngille munduan; iñok ez eban uste aldi baten gotzain izatera be iñoz elduko zanik. Iainkoaren bideak.

Batzar Nagusian berak esandako itzaldi batetik atara doguz emen datozan esakerok. Onerako izan bekiguz.

«Gaurko munduaren egoeran, gazteak gizadiaren erdia egiten dabe. Ta gizadiaren erdi au, beste edozein bestean ezta artu bear; zatirik biziena ta geroan lanik geien egin bear dauana berau da-ta. Gazte onein bizitza, lengo gazteen bizitzaz oso ez-bardiña da. Euren guraso, sendi ta aberritik geroago ta urriñago bizi dira ikasketakaitik, lanagaitik edo iolasakaitik. Iñoz baño alkartuago dagoz, ta iñoz ez lez alkarregaz bizi dira. Aparteko era batez gizadiari dautsen zorra ordaintzeko zein bide artu arabagitzeko kezka dagoz ontxe.

«Sartzera doazan eta lanean asten diran mundu au iñoz baño lokaago dago auzi astun eta barrietan. Mundu au bide onetik edo txarretik ioatea gazteen eskuan dago. Baztarrean bakarririk itxita, euren adiñeko eta mundu barri onetako oztupoak gazteok ezin dabez menperatu.

«Augaitik, Batzar Nagusi onek («*Eleiza Munduan*») agiri onen bidez, dei berezi bat bialdu bear dautse gure aldiko gazteai: euren ustea sendotzeko, eta era berean euren kontzientziaren araura aldi onetarako ta etorkizunetarako, baktotxa bere tokian arduratu daiten.

«Baña Batzarrak ez dautse gazteei «gurasokeriz» itzik egin bear, gizontasunez baño, euren erantzun-bearra iakin-araziz. Gure mundua euren naimen azkeagaz aukeratzan dabena axe izango da. Baña sarri askotan, euren zeregin zoragarria egiten ez iake ixten. Batzutan euren erruz iakiña, baña baita era zantar batzuen erruz, eurak zapaltzeko egiñiko legez.

«Agintedun guztiak, erriko nai ostantzeko dirala garbi eta beti, munduko gazte guzteei lagundu bearra dauke, alaitasunez eta biotz-zabalez zeregin au beteaz, mundu osoa barriztau eta landu dagien.

«Eleizak auxe eskatzen dautse, oso maite dauzan gure aldiko gazteei: Kristok bere aldiko gazteentzat eukan maitasuna gogoratuz, gizonen batasuna eta salbaziñoa egiteko, orain eta gerokoan Iainkoa goratzeko, euren onetako zere-

gin donetzaillean, langille bizkorrak izan daitezala aldi barri oneitan».

Esaera ausarditsua kardenal ule-zuridun onena. Ion XXIII'garrenaren biotzkadak gogoratzen dauskuz «Bakea lurrean» eskutitzean gazteei mundu obe bat egiteko laguntzera etorteko deitzen dauzanean.

Anaitasunak, gure artean biziko bada, gazteen bultzada bearko dau. Gazteak geroaren iaube. Gazteak irabaziko dogu. Kristo, Egia. Garbitasuna, maitasuna, zuzentasuna, indarra, gazteenak dira batez be. Langille gazteak, gure da bizia. San Jose Langillearen itzalpean, gure erriaren alde iokatu daigun egunero al dogun gaiñoan, Cardijn'en deiari iaramon eginda. Uleak zurituarren gaztetasuna ez daigun galdu.

Zabale



Jon. Cardijn

Uleak zurituarren gaztetasuna ez daigun galdu.

# Erriz erri

ERMUA'tik

A. R. C. E. (Asociación Recreativa Cultural ERMUA)

Elkarte onen barri emonaz idatzi nai dogu, gure irakurleak jakin daien zer dan. Zorionean azaldu da bazkuntza au, ze bere premiñan agertzen zan gure erria. A. R. C. E. antolatua izan da: Antzerki, Abesti-saio, Erakusketa, itzaldi eta abar emoteko; berba baten, jakintza gure errian zabaltzeko.

Elkarte onen jaiotza zor deutsegu: Victor Elejondo, Luis Maria Izaguirre, Pablo Guridi, Moises Gorozabal eta beste antzerki taldeko adiskideeri eta baita bere «Gazte-Leku» taldeari; bertakoak dira: Rikardo Alaba, Zorion Mugerza eta abar. Gazte ta zar alkarturik urten deusku itzaroten genduan Elkartek. Ondo etorria izan daitela gure artera!

Gogoz ekin deutse, eta bear asko egin dabe denpora gitxian. Orra agerketa batzuk: Aurren margo-agerketa, bi bider; Osagille itzaldiak, 3 aldiz. Lege-gizon batek berba egin eban «gizarte-auziari» buruz. «El Caserío», 3 edo 4 agerketa. Eibar'ko margolarien Agerketa, eta zine forum, beste gauza askoren artean. Bizkaiko Abestxapelketa, Agate deunaren abestiak, ta orretara beste gauza asko.

Ermutarrok! Danok alkarturik geratu gara Elkartean. Jarraitu daigun aurre-gure arloan.

Aranberria

ZALDIBAR'etik

Koral'eko izparrak

Urteko batzar nagusian, elkartean orrek, asmo ugariak artu ditu. Orreitariko batzuk oneik izan dira:

Ajedrez txapelketa, Pelota txapelketa, Mendi ibillerak, Liburutegia geitu, Dantzariak errietara zabaldu, abar eta abar.

Antzerki taldea

Zezeillaren 19'an, erri onetako antzeslariak, Otxandio'ra joateko dira, «Aitona ta Billoba» Garitaonandia apaizaren antzerkiagaz. Orretarako gertaketak egiten dabil, eta esan deuskuenez, beste antzerki barri bat ikasi bear ei dabe, gero, lenago egin eben antzera, inguruko errietan ipinteko.

Gure baserriarrak

Pozgarri jaku, gure baserri gizonak aurrerapen zale dirala ikustea. Eliz gizonak antolatuta, itzaldi bikaiñak izan ditue. Gai onetan lan asko egin bearrean gagozaina nok ez daki?

Asikerea emon yako, eta jarraitzeko asmo onak artu dira. «Extensión Agraria» deritxon elkarteko maiñuak zuzendu ditue itzaldi orreik. Eurak esanda dakigu, Zaldibar'en lez inon ez dala jenterik batu. Ondo amaitzeko ibiltaldi edo ekursiño bat egiteko dira. Guztiz ondo iruditzen yaku. Jarraitu olantxe.

Eriotza

Urtarrillaren 27'an il zan Solozabal baserriko, Eugenio Urizarbarrena. Bere semeel laguntzen deutsegu atsekabeen.

LASUEN

ELORRIO'tik

Olakueta'ra jo gura ba-dozu oñezian, bide asko laburtuko dozu kaletik killometro bat ingurura zeure eskuma aldiian ikusiko dozun galtzadea artzen ba-dozu. Aitearen egin ordukoxe Liorreta'n aurkitzen zara. Miota eta Leiztarrentzat egokitasun aundikoa, barriz, bera.

Azalpen edo esplikazio au emon ba neuzuen orain iru illabete dala, esate baterako, samea jokatu neban kokolotuta geratuko ziñiela ez zenduelako ikusiko ez eskuman oña, arantzea ta elorria baño. «Galtzadea? Ori, Sabin'en burutaziño bat izan dok» esanda, aurrera jarraituko zenduen... bide zabaletik, jakiña!

Galtzada ori apaintzea euren kontura artu eben Ugaldea'tar Esteban eta Murgoitio'tar Jose Andres'ek. Eta zelan egin begero! Bien artean garbi ta txukun jarri dabe bide ori ta bere inguruak, onelako lanetarako erriko agintariak emoten daben ardaua eskatu ez ixtaron barik egin be: ta ez uste izan gertakizun aundirik erabili ebenik aurretik, bai zera! Ardautegian baso bete edaten dagozala. «I, garbituko yoau galtzadea?» «Aotik kendu daustak berba ori!»

Ta an dago a!

Olakoren bat ez ete-yako gertatuko Kurutzondotik Berriozabaleta'ra doan galtzadeari be? Txarto dago a, ta une batzuetan, barriz, tanke baten laguntzaz izan ezik ez dago erarik aurrera jarraitzeko.

\*\*\*

«Zeren antza artu ete-leiok Elizburu'tik doan bide zabalari?, itaundu eutsan lengo egun baten Martolo'k Roke'ri. Ta onek: «Galbara batena izan ezik ez-yakiat, ba...» «Zergaitik, ba, galbara batena?» «Biak zuloz beterik dagozalako...»

Egi biribilla. Baña Kurutzia'n dagoana, batez be...

Orra zulora dozena bat kamioikada arri itxuli ezkeron naiko izango litzakela deritxat, beñepein itxuratxo bat emoteko. Zer da, ba, ori be?

\*\*\*

Auxe idazten nagoala etorri yat bostgarren elorriotarra itaun au egitera: «Egia da Iguria aldiian pantanu bat jarri bear dauskuela?» «Ezertxo be ez dakit orretzaz». «Zabal dabil, ba, albiste ori erri guztian. Da larritasun apurren bat be sartzen asi dala esan leiteke elorriotarren artean, erria bendeen artuko leuke-ta. Zer jasoko litzake —beste leku batzuetan izan dan lez— inoizko denporan ormak apurtuko balitzaz?» «Ez dakit, ba...: nik uste dot gauzarik onena izango litzakela itxasontzi edo barku bana ainbat ariñen erosi ta baktak bere etxaurrean bada-erpadan iartea-edo...» «Ez da au ulia artzeko gauzea, gero!» «Ezta oraindik asita larritzekoa be!»

\*\*\*

Emengo goiko ta beko kaleko Funkor'eko eskolak oso goian darabille euskerearen ikurriña. Umeak —berarizko irakasleen bitartez— oso polito ikasten asi dirala edonok egiztau edo ikusi leike kalean bertan be. Euren orduak dabez euskerearentzat; eta ez uste izan begiratu bat egin onetzazko liburu bateri ta or-kompon eriten dabela, ez! Zentzun guztiak arlo orretan ipiñita, irakasleak ganean dabezala ikasi be. Ia egin ez...!

Osterantzeko joan-etorri guztietan be puntarengoak dira, ta azterketa denporan, barriz, gorengo mailtan dabilzanak, beste eskolak beeratu barik, jakiña! Baña oneetan ez dabe euskeraz piperrik be irakasten, eta nik —euskeraz idazten doteta— zetan goratuko dodaz, ba, aitu be ez daustie egingo-ta?

\*\*\*

Irribarretxo bat, irakurle...!

—Kurutzia'ko bide zabaleko zulo batek kotxia ataraten lagunduko daustak?

—Bai pozik be! Baña emendik bide guztia araño ikusi arren, nik ez joat, ba, ikusten ez kotxerik ez eta goitik-berarik be.

—Zelan demontre ikusiko dok, ba, zuloan sartuta dak-eta?

SABIN

GERNIKA'tik

Gernika, inoren lepotik azten.

Joan dan illean, Kortazubi, Arratzu, Foru, Murueta ta Nabarniz'ko erriak, Gernika, Lumo ta Ajangiz'egaz alkartu zirean. Zortzi erri oneitatik txikiena Gernika zan eta... esakera zarrak diñoana, atzekoz aurrera egiñaz, «txikiak iruntzi ditu zazpi nagusiak». Kilometro kuadro iauren inguru zana, irurogeta bat eta erdiraño aundi ta, inoren lepotik.

Batze onek zer esan ugari ipiñi dau jentearen artean: Nok nai izan dau erriok alkartzea? Non dago erriaren oneritxia ta baimena? Gaur egunean olantxe egiten dira gauzak, emen beintzat.

Deunoro

BERMEO'tik

Zezeillaren lenengo egunak jazokera illun bat ekarri deusku. Arratsaldeko iruterdietan oker andia gertau da Txibitxaga ganeko bidezabalean: auto blk alkar jo. Kotxean betik gora ioiana guztiz txarto gelditu da. Bermeoko semea bera: Servodeo Atela, etxegille ta kontratista ospetsua. Ordu bete barru emon eban azken arnasa bere anaiaaren besoetan. Siñistu eziñik gagoz, baiña gertautu dago.

Bera lako gizon sasoitsu ta kementsua gure artetik ain arin joateak inpresio sakona egin deusku.

Goian bego. Bere familikoeri, ta batez-bere alargunari eta seme-alaberi atsekabeen lagunduten deutsegu.

\*\*\*

Nik eztaikit beste errietan zer jazoten dan zapatu eta jaien gabetan, baiña Bermeon gertatzen dana «eskandalua» da. Badagoz batzuk, goizeko gabeko lauretan be ondiño kantuan eta zarataka kalez kale dabilzanak. Ez aurretik ondo edan barik erre. Orreik ez dira konturatzen ordu orreitan geienok lotan edo lo egin guraz beintzat, oian gagozala, ta batez-bere ume txuak, lo-premiñ andiena daukenak, arin itxartu leitekezala kanpoko aldarri-kantu ta bulleagaz?

Noiz arte jarraitu bear dogu olan? Zibilizaziño apurtxo bat ez ete jaku elduko Bermeora be? Eta zer egiten dabe agintariak edo euren ordezkoko, gabeko ordu orreitan olako abusoak galerazo barik?

Barrizalr

# MUNDUA MUNDU

## Gorriak Batiano-an

Izan barri dogu Europa alde onetan Podgorny, Errusi-ko Soviet Nagusiaren lendakaria. Errusitarrek Asia alde ori lainatua ikusten dabe nunhait eta, euren azal-kolorekoen artean barriztu gura dabez adiskidetasunak, politika ta sal-erosi artu-emonetarako geientsuen bat jakiña. Itali-n be ibilli yaku Podgorny jauna, here egonak zirti-zarta bonba zarata itzelak atar-arazten dauzala ez ba jakin musika zantar ori nortzuk loten dautsoen, fajista barriak edo Txinagorri-zale diran komunistak.

Mundu guztiak jakin dau Errusi-ko lendakariak Aita Santua bixitatu dauana. Joan dan urteko (urtarrillaren) 30-an izan zan. Ordu beteko egonaldi luzea egin eben alkarregaz. Lendik be, orain ia urte bete dala, Batikano-an izana zan beste jaun errusitar bat, Gromyko, Atzerri Arzaoen ministroa; baiña lendakaririk orainarte ez, etzan Errus-n matxinada gorria sortu zanetik emen agertu, Podgorny lelenoa Aparteko itzalez artu ei dau Aita Santuak: alkar-berbetakoan —sekula jazo ez dana— zigarroa be erre ei eban jaun orrek eta... Aita Santuak berak emonda, pentsa! Estutu egin ete yakon barrua Errusitarrari Kristo-ren Ordezkoaren begi illun triste areek ikustean?

Berbeta-geiak onexek izan ziran, ondoren jaitin arazi ebe-nez: bakea zelan irabazi daiteken, errien arteko artu-emonak zabaldu sendotuaz; Errusi-ko erlejiño bizitza ta ango Eleiza katolikoaren egoerea. Naiko ta geiegi, ordu betetxo baterako. Ondorenak? Ixillean gorde dabez. Ofizial erara izan ezta be, bata ta bestearen ordezko mandatariak izentatuko dabezalado zabaldu da esana, alkarren arteko arazoak garbitu al izateko. Erlejiño askatasun geiago emonaz, Kostituziño barri bat asmatuten ei dabiltz Erusi-n da... Geroak esan bei.

Batzuen batzuk urratu dabez onezkero soñekoak, Aita Santua gorriakaz asi yakula esaten-da. Eskubi-musturrean dabilzan betiko arrisku-igerle oilloak! Zer, ez al dauz ba Kontzilioak artu-emon oneen mugak garbi jarri? Katoliko fedeari ikuturik be ez sekulan, baiña alkar-berbeteari —zuur eroanda ori bai— egi-egitan ekin bear dautsola Eleizak. Orretxen erakusbide emon dausku ba Aita Santuak.

Jainko-bakoak gizonak dira gu lantxe, ta euren arrazoiñak daukez olan jokatuteko, naiz-ta guk, benetako arrazoiñik ezin euki daikeela jakin. Maitasunak eraginda, euren uste orreek ezagutu bear dauz Eleizak alik eta ondoen, bear dan lez aztertut. Ortarakoxe da alkar-berbetea. Ta ez uste izan, kristauok be ba-dogu ontan erru; alan diño azkenengo Eleiz-Batzar Nagusiak: guk geure erlejiñoa itxura jatorrean agertu ezto-gulako. Zabarkeriz ibilli gara edukaziñ, kontuan, edo Eleiz-dotrina ezta egoki erakutsia izan, edota gure erlejiño, oitura ta gizarte-jokaera utsunez josita ikusi izan dabe. Arrigarria al da ba, olan sinisgabekeri-zuza gaizto au ugaritutea?

Erremedio bakarra: mundu illun ontan Kristo-ren argia biztu. Eleiz Amaren betartea tximurrik gabe, eder eta argitsu, Jesus beraren maitagarritasunez agertu. Ortarakoxe emon dau Aita Santuak esanai aundiko pauso ori. Berak bakarrik daki zelako biotz-zirradaz! Ikusten nago oraindik orduan telebisiñoz ikusi genduan azken agurra: Aita Santuak emon eutson erregalo Podgorny lendakariari liburu baliotsu bat, eta jaun aren eskua gogor estututen eban bitartean, bestalderatu egin bear izan eban Aita onak mosuagaz begiratua... Errusi! Eleiz Amari amaika malko ixuri arazo dautson naziñoa!

A. ZURUTUZA

## ANAITASUNA

Kantauriko Frantziskotarrak argitaratua

ANAITASUNA idazti lez agertuko da, aldizkari le- argitaratzeko baimenak eldu artean.

Zuzendaritza ta Banakola

Irala, 8 — Bilbao-12

D. L. BI. 1.251 - 1967

GRAFICAS BILBAO - Gordóniz, 28, 3.º - BILBAO-10

## EUSKAL ADITZA

(Verbo Vasco)

Bizkaiera ta Gipuzkera

JOSEBA INTXAUSTI<sup>pk</sup> egiña

51 paradigma (margo gorri-baltzez)

Aurkibide luze bat

euskeraz eta erderaz

171 orrialde

Salneurria: 45 pta.

NORA ESKATU:

YAKIN

Arantzazu — OÑATE — Guipúzcoa

## ANAITASUNA

IDAZTI AU 1967-KO MAIETZAREN 27-AN AMAITU EBAN «GRAFICAS BILBAO» IRARKO-LAK.

## POPULORUM PROGRESSUS

Laster argitaratuko dogu ANAITASUNA ale berezian POPULORUM PROGRESSUS («Errien aurrerakuntza»), deritxon Paul VI-ren Eskutitz Nagusia.

# LITURGIA BARRIA

- BRASILEN ETA COLOMBIAN, EMAKUMEAK EMOTEN DABE KOMUNIÑOKO SAKRAMENTUA
- AFRIKAKO DIOSESI BATZUTAN, AMAZAZPI IZKUNTZA ERABILTEN DIRA LITURJIAN
- INGLATERRAKO KATOLIKUAK LITURJIAKO INGLESAREN KONTRA JARRI DIRA
- JAZZ MUSIKEA ELEIZETAN?
- LEN BAIÑO OBETO ULERTZEN ETE DAU ERRIAK LITURJIA?

Kontzilioaren bigarren dokumentuak —Liturjiaren Errenobaziñoa arlotzat daukonak— biztu ta indartu gura dau kristiñauen fedea Jaungoikoari zor deusagun kultuan. Duda barik, puntu onetan egin da alegiñik geien, mundu guztian zear, Kontzilio osteko amabi illabeteotan. Ona emen zer diñoskun orren gaiñean, urtarrilleko lenengo numeruan, **Informations Catholiques Internationales** deritxon Frantziako aldizkari famaduak.

Leku askotan —Italian, Frantzian, Alemanian, Inglaterran, Perun, Bolivian, Espaiñian— Eskritura Santuko irakurgai barriak sartu dira liturjian, astegunetako mezetan irakurteko eta olan Bibliaren ezagutzea kristiñauen artean zabaltzeko. Goiko Volta deritxon Afrikako lurraldean, arrezkero emakumeak leidu leikeez meza-ko irakurgaiak, arazo orretarako gertue-  
nak erri askotan eurak dira-ta. Brasilen eta Colombian barriz, monjak eta hermanoak emon leikee komuniñoa, abadea lantzean bein bakarrik etorten dan parroketan.

Baiña lanik aundiena latiñezko liturjian egin da, oraiñarteko tekstuak erriko izkuntzetara biurtu ta akomodetako. Goiko Voltan, esate baterako, irurogei izkuntza erabilten ditu erriak, eta euretariko amazapi artu ditue obispoak liturjiarako. Bardin antzekoa jazo da Mali deritxon Afrikako lurraldean; emen zazpi dira liturjiako izkuntzak. Atara kontuak zelako lana egin bear izan daben alderdi orreetako abadeak, preparaziño aundi barik, latiñezko liburuak Afrikako kultura bako izkuntzetara biurtuteko. Akats bako lana ez dabe egin, seguru asko; baiña pausurik gaxena emon dabe beiñik bein, eta ez jake gogorik falta, asitako bearra geldi geldi-ka obaturteko.

Izkuntza bera —esate baterako, inglesa, frantsesa naiz espaiñola— erabilten daben naziñoetan, alegiña egin da, liturjiako liburuen traduziñoa leku guztietarako bardiña izan daiten. Baiña batasun onek, alde batetik bentaja aundiak eukiarren, ba daukaz beste aldetik bere akatsak; eta akatsik aundiena auxe da: naziño bakotxaren berba egiteko apartekotasunari kasu gitxi egitea. Orregaitik, Argentinan ez dabe ontzat artu Espaiñiako itzulpena, eta eurak euretara erderaratu dabez mezako liburuak.

## Liturjiaren akomodaziñoa

Gauza gatxa da, izan be, itzulpen on bat egitea. Italian eta batezbera Inglaterran, eztabaida gogorak sortu izan dira bertako traduziñoen gaiñean. Inglaterrako jente askoren ustez, liturjian sartu dan inglesa larregi urrundu da erriak gaur egunean erabilten dauan berbeta bizitik, eta latiñezko tekstuen itzulpena gaurko gizonarentzat guztiz da ulergatxa, akomodaziño ta adaptaziño gitxigaz egiña baita. Inglesen eritxi gogor au beste naziño askotan be agertu da.

Liturjiaren akomodaziñoa, izkuntzan baiño geiago, musika kontuan egin da. Orranemen, meza asko agertu dira, erriko soiñu ta istrumentuakaz abestuten direnak, esate baterako, Sudafrikan, Rhodesian, Congo-Kinshasan, Perun, Bolivian, Chilen, Mexican, Paraguayan eta Puerto Ricon. Norteamerikan eta Italian aprobada egin dira jazz musikea eleizan sartzeko, frutu barik baiña. Belgikan, asko dira liturjiako lanetan bear egiten daben musikariak. Eskandinaviako katolikuak, eleiz-musika batzar baten ondoren, euren obispoeri eskatu deutsee, bertako luteranoen eleizkantuak ontzat artzeko, liturjiaren eta ekumenismuaren onerako.

## Utsuneak eta akatsak

Baiña oraindiño asko falta jako liturjiaren errenobaziñoari, bear dan modukoa izateko. Onetan katoliku guztiak dagoz konforme, mundu osoan zear. Entzun, esate baterako, zer diñoen Peru, Ceylan eta Inglaterrakoak: «Gure artean, legearen bidez sartu da liturjiaren errenobaziñoa. Begira gagoz, ea noiz asiko direan obispoak, erriari ta eleizgizoneri benetako formaziño liturjikuak emoten. Ez da naikoa legea emotea eta legearen azaleko aplikaziño utsa bakarrik pratikan ipintea. Legeak mentalidade barri bat sortu eragin bear dau» (Peru).

«Emen asko diskutietan da, non ipiñi kandeleroak, nora eroan sagraioa, zer egin eleizako irudi orregaz edo aregaz; baiña formaziño kontuan ez dogu gauza aundirik egiten; abade askok, jakin be ez dakie zetan datzan errenobaziño liturjikuak» (Ceylan).

«Gauzak ondo dabilta emen legearen aldetik: erreglamentu asko argitaratu dira. Baiña eleizagintari nagusiak gitxi egiten dabe, Kontzilioaren liturjiako dotriña abadeen eta erriko jentearen artean zabaltzeko. Diosesi geienetan, gure ustez, erriak ez dau len baiño obeto ulertzen liturjia» (Inglaterra).

## Urretxuko batzarra

Eta euskaldunok zer diñogu, zer egin dogu liturjia kontuan, Kontzilio osteko lenengo urte onetan. **Informations Catholiques Internationales** amabosterokoak sarritan ekarten ditu Euskalerriko notiziak; urtarrilleko lenengo numeruan barriz, ez dakar ezer. Nik, neure aldetik esangó deutsuet zeredozer.

Joan dan garagarrillaren (julioaren) 6tik 8rarte, Baizkai, Gipuzkoa, Lapurdi ta Nafarroatik etorritako berreun bat abade ta fraille batu zirean Urretxuko Pasionisten etxean, eta erabagi inportanteak artu zituen, Euskalerriko mobimentu liturjikuari batasuna ta indar barria emoteko. Eleizgizonak lanean ari dira, Eskritura Santuko irakurgai barriak euskeraztuten, gero ainbat ariñen liturjian sartzeko eta astegunetako mezetan irakurteko. Lan gatxa benetan, gure erriak ainbeste dialektutan berba egiten daualako eta euskerazko kultura aundirik ez daukalako.

Oraiñarte, ia lan guztia eleizgizonena izan da. Erria geldirik dago, ixilik dago, ez da sartu benetan mobimentu liturjikuak. Sartuta balego, eta bere barruko benetako eritxia agertzeko adorea baleuko, liturjia barrian egiten direan gauza guztiakaz ez litzake konforme egongo. Seguru segurutik, Inglaterran jazo dan antzera, gure artean be eztabaida gogorak sortuko litzakez, esate baterako, liturjiako liburuetan erabilten dan euskerea dala-ta. Askok eta askok —batezbera linguistika apurtxu bat dakienak eta ezelango prejuziorik ez daukenak— esango leukee, liturjiako euskerea ulergatxa dala, erriaren berbeta bizitik urrun dagoala eta laboratorio naiz museo usaiña daukola.

Imanol Berriatua

# ERRI ERITXIA ELEIZ BARRUAN

- «ELEIZEA BIZITZA DAUKON GORPUTZ BAT DA, TA ERRI ERITXIRIK EZPADAUKO, ZERBAIT FALTA YAKO» (PIO XII'GNAK)
- «ERRI ERITXIA ASKATASUN OSOAGAZ ERABILTEN EZ DAN TOKIAN, BAKEA BE ARRISKUAN DAGO» (PIO XII'GNAK)
- «ELEIZ BARRUAN ZUZENTASUNA GURA DOGU» (NEW YORK'EKO IKASLEAK)

Katolikoak eta katoliko ez diranak alkarren eskubideak errespetatu egin bear dabez, pertsonaren eskubideak direalako, ta ez katolikoenak bakarrik.

Beraz, Konzilioak Eleizako erri eritxiari buruz berba ez egin arren, bere oiñarria emon dau: **askatasuna**.

## Askatasuna erri eritxiaren oiñarria

Konzilioak Eleiz barruan izan bear dauan erri eritxiari buruz ez dau berbarik egin. Zegaitik? Ez dakit; baiña Eleizeari buruz egindako eskema lenengo aldiz agertu zanean, Obispo batek aldakuntza eskatu eban, erri eritxia argi ta garbi agertu eiteala eskatuaz. Ez da agertu; baiña Eleizearen konstituziñoak argi azalduten dau katoliku ta eleiztar baten nortasun bete-betea.

Eleizeak pertsonaren askatasuna beti yagon dau. Pertsonari bere gizatasunetik yatorcion doaia, Eleizeak ezin dau zapaldu ta ukatu. Ta, konzilioak Eleizako erri eritxiari buruz berba ez egin arren, askatasunatzaz egin dau, ta askatasuna da erri eritxiaren oiñarria. Konzilioak garbi agertu dau gizonaren askatasuna: askatasuna bere kontzientziak eskatuten deutson erlijioari jarraituteko, t. a. Askatasuna ez da siñestedunen eskubide berezia, gizon guztiena baiño. Gizon guztiok egi egarri gara ta egiaren atzetik goaz, baiña orretarako gizonak askatasuna bear dau. Orregaitik, Eleizeak ez dau ondo ikusten erri agintari batzuek siñestedun eta siñis bakoen artean egiten daben banaketa, giza-pertsonaren eskubideak ukatuten dabez-ta.



«Eleiz barruan zuzentasuna gura dogun»

## Erri eritxia Eleiz barruan

Or daukagu Konzilioa Eleizako erri eritxiaren benetako testigantzea lez. Konzilioa ez da izan goitik zuzendutako jazerker bat. Obispo guztiak izan dabe euren eritxiak agertuteko eskubidea ta erreztasuna. Gauzak ez dira goizetik gauera egin; artu diran erabagiak eztabaida askoren frutuak izan dira. Eskema asko osoan barrituak izan ziran; beste asko aldatuak. Ta, Konzilioan parte artu dabenak ez dira Obispoak bakarrik izan; seglarrak be izan dira, ta eskubide ta askatasun bardiñak euki dabez euren eritxia agertuteko.

Baiña, gai onetzaz garbi berba egin eban Pio XII'gna izan zan. «Erri eritxia, gizonak egindako soziedade normal bateko aberastasun edo propiedade da, erriagaz daukezan eginbearrak kontzientzian dorezan gizonena. Erriaren eritxia agertuten ez dan tokian, erri orren sozial bizitzan geixotasun edo txarto jokatzeko bat ikusi bear litzake.»

Jakiña, Pio XII'gnak berba oneekaz gizaritean izan bear dauan erri eritxia agertuten deusku. Baiña, Eleizea gizarte bat da, gizarte osotu bat (sociedad perfecta) beraz, katolikoak ez dogu gizon lez daukagun eskubide ori galduten «Jaungoikoaren graziak ez dau gizatasuna desegiten, osotuten baiño», esakera zaar batek diñoanez.

Baiña, Pio XII'gnak berak diño: «Eleizea bizitza daukon gorputz bat da, ta erri eritxirik ezpadauko, zerbaite falta yako».

Seglarra, Konzilioari eskerrak, Eleiz barruan berari yagokon maillara igo da. Lai-koak Eleiz barruan ez dira entzule utsak.

Jaungoikoaren erritar lez euren eritxia agertuteko eskubidea dauke; eskubidea esan dot, beraz, eginbear bat. Orain arte Eleiz barruan Obispo ta abadeak izan dira nagusi; ta Eleiz barruan ez ezik, beste leku askotan be bai. Obispoak eta abadeak diñoenari: AMEN. Seglarrak —idazle ospe-tsu batek iñoena— Eleizara joan, entzun eta limosna emon, besterik ez.

Seglarrak bere nortasunaren kontzientzia artu bear dau, eta agertu Eleiz barruan bere eritxiak. Sortu daitela geure Eleiz barruan Konzilioak eta Aita Santuak eskatuten daben alkar izketa edo dialogua. Geure Eleiz barruko bakea ez daitela izan bake ixilla; kanposantuetako bake mutua; entzun daitela Eleiza egiten dogunon abotsa.

## Erri eritxia Euskalerriko Eleiz barrufietan

Oraindik orain, Katoliku ekintzako talde batzuetako buru ziranak baztertuak izan dira. Zegaitik? Izparrangiak ekarrenez, euren eginkizuna ondo bete ez dabelako. Geroago jakin danez ez dabe alkar izketarako erreztasun eta aukerarik emon. Goikoak agindu dabe, ta bekoak ez dabe euren eritxia ta errazoa agertuteko erreztasunik izan; euren eritxia agertuteko eskubidea ukatu egin yake. Jazokera negargarria Konzilio osteko sasoi onetan...!

Geure Eleiz barruan aspalditik agiri diran naasketa ta krisisa, nire ustez, ondo konpondu leitekez erri eritxiaren bitartez. Gauza asko dagoz oker, zuzendu leitekez alkar izketa baten bitartez. Gaurko gazteak, eta euskaldunak be bai, euren eskubideen kontzientzia artu dabe. Gaurko geure eleiztarrak ez dira gure aitita ta amama lakoak. Gaurko gazteak euren esubideak Eleiz barruan aintzakotzat artu daitzala eskatuten dabe, ta Euskalerriko Eleizeak ez badeutso eskaera oneri erantzuten, Eleizatik urrun joango dira. Bear bada, gero berandu izango da; gaur Eleiz barruan alkar izketa bearrezkoa yaku.

Felipe Izagirre

# EUSKAL

## KIROLARIEKAZ

### MUNGIAN



(Goian, eskerretik eskumara): Isuskiza, Ereñozaga, Iribar, Urrutia.  
(Bein, eskerretik eskumara): Otaola, Lavin, Uriona, Ormaza.

Goiko argazkian ikusten dan lako kirolari «txorta» batzea ez da gauza erreza, baña geienok jakingo dozuen lez, Bilbon kirolzaleen artean, «Peña Iribar» deritxon lagunarte barria sortu da. Bizkaitar eta gipuzkoar gazteak, mutil jatorrak, dira geienak; ikasleak dira ia danak, baña euren tartean ostikolari bi ta txirrindulari bat dagoz: Labin, Isuskiza ta Uriona.

Uriona iru edo lau illabeterako erbesteratutzen zan eta bera agurtzeko bazkari bat egitea asmatu eben bere lagunak. Mungia «Guri Zer» soziedadean izan zan anai arteko jai ori. Bazkal ostean makiñabat euskal ebesti gozo entzun genduzan, biotzetik urtetan eben abesti gozoak. Bitartetan, danakaz alkar izketa batzuk egin genduzan; ona emen labur labur erantzunik garrantzitsuenak.

#### ISUSKIZA

—Bilbon bizi zara baña nongoa zara?  
—Ni, azkoitiarra.  
—Pozik orainarte Athletigaz?  
—Bai, zergaitik ez!; ostikada batzuk emoten doguzan artean Perito karrera aurrera doa.  
—Euskalduna bai, baña zintzoa zara?  
—Bai, lagun, zintzotzat daukat beintzat neure burua (ta irripar zabal bat agertzen da bere aurpegian).  
Benetan aurpegia bada gogoaren ispi-llua, mutil onen gogo garbia izango da.

#### URRUTIA

—Zeu zara emen gazteena —diñotsagu Andrakako txirrindulari azkarrari—. Ta aurtan zer?  
—Aurtengo tenporadea ezta erreza izango, amateur asko gagoz eta geienak txakur zarrak dira.  
—Baña oraingoan eztago atxakirik; txapeldun izango zara?  
—Alegiñak egingo doguz baña... ta gora begira lotu da.

#### EREÑOZAGA

Gabino, laukiniztar morrosko sendo onegaitik, aurrekoagaitik esan dogun guztia esan geinke; euskalduna burutik beatzeara.

—«Fagor» en pozik, Gabino?  
—Bai orain arte ta oraindik aurrera geiago, nire ustez.  
—Zergaitik ori?  
—Ba, neure lagunik onena, Balentin, alboan eukiko dodalako.

#### LAVIN

Ondarrutar gazte au oso alaia ta apala da; gure galdera apur bat mingotsa da.  
—Pedro, zer pasaten yatzu azkeneko partiduetan  
—Eztakit baña, gauzak ez deuste urtetan neure gustora.  
—Zergaitik ete da?  
—Moralax pixka bat galdu dot bear bada...  
Atxakirik eztau adierazten euskaldun gazte onek. Laster izango da guztiok nai dogun ostikalari aundi ta azkarra.

#### OTAOLA

Javier, Vallekoa da, ez daki euskerarik, baña euskalzalea da.  
—Kaixo, Javi! Zelan zabiltz?  
—Zoritxarrez ez deutsut ulertzen (erantzun deusku erderaz, irribarrez), baña San Salvadoren orain asten ei dira euskerazko klaseak eta orduan ikusiko dozu.  
—Zelan doa txirrindularitza?  
—Txirrindulak baño buruko miñ geiago emoten deust Termodinamikak (perito ikasten dago ta danak batera egitea gatxa da).  
Otaola «Kas» en dago ta besteak «Fagor» en; orregaitik makiñabat zirrikada botatzen deutsoe Urionak eta Ereñozagak. Baña dana lagun artean.

#### IRIBAR

Porterurik onena izango da gure zarauztar morroskoa, baña ona bezin apala esango genduke. Danontzako dauka zeozer ta arrokeririk bapez.  
—Jose Anjel, egia da Europako porterurik onena zarala?

—Ez eidazu olakorik esan, European porteru onak zenbat gura dagoz eta ni beste bat baño enaz.

—Bilbon «Peña Iribar» sortu dalako pozik?

—Olorokik merezi dodanik ez dot uste baña, gaurko moduan, lagunekin alkartzeko bada... atsegin aurkitzen dot adiskide onen asmoa.

#### URIONA

—Gauza asko irakurri doguz aurtengo neguan; egia da Gabikagaz asarratu zarala?  
—Ez orixe, Gabika ta ni lengo beste lagun gara; nik «Kas» etik kanpora obeto ibilliko nazala uste izan dot eta orregaitik askatasuna eskatu neban. Ta nok diño, datorren urtean barrero alkarregaz egongo ez garala? (Eta irripar dizdiratsu bat agertzen yako begietara).  
Egia esan. Balentiñek txirrindularien artean areriorik daukonik eztogu pentsatzen.

#### ORMAZA

Algortakoa da Javier. Itaundu edozein erritarrerri beragaitik eta erantzun bardiña artuko dozue: Mutillik apalena, zintzoena ta kementsuena.  
Egun aretan kendu eutsoen igeltsua eta pozez beterik egoan.  
—Noiz asiko zara olgetan, jokauten?  
—Nire ustez, laster. Len be lau illabeterako esan eusten eta bi illabetegarrean tinko nengoan, orain be bardin.  
—Egiten dozu euskeraz?  
—Ez, dana ulertzen dot baña egiteko erreztasunik ez daukot; baña ez larritu, laster ikasiko dot —diñosku oso osoan.

Eta Ormazaren erantzunak amaitzen dogu gure idazlantxo. Kirolarien akatsa edo utsa danok ezagutzen doguna da... baña danak ez dira utsak. Guk gaur emen erakutsi dogun taldeak euskal kirolaren eta euskal abendaren izena goreneko malletan jarriko dabe.

Zorionak eta urte on bat danori.

Munegain

# TXIRRINDULARIEN GIROA

# “AMOREBIETA IV” PELOTARIA SARITUA

Magne'k diñoanez, 1967'gko. «Tour» ortara, euskal-talde batek joan bear leu-ke.

«Sollube»k oster, «La Gaceta»n, talde sendo bat bialdu bear dala diño.

«Sputnik» barriz, talde bi osotzeko aña lasterkari ba dirala españarren ar-tean, esan dau.

Ta orain entzun daiogun, Euskal-Erria oso maite dauan Antonin Magne'ri, bi aldiz «Tour» ori irabazi ebanari. Onek bere emaztea euskalduna dau, ta bere laguntxuaren omenez, euskal-txapela jantzi oi dau.

Auxe da berak esanikoa:

«Euskal-Erriak lau txirrindulari dauz, lenengo mallan mundu-zear ibili daite-kezanak: Etxebarria, Gabika, Momeñe ta Otaño. Malla orretan sartu daitekez bai ta be: Perurena, Uriona, Elorza, Velez, Mendizabal, Errandonea, Lasa, Uribezubia ta beste bat edo beste».

Kirolari dagokionez bidezkoa da, munduko erri zarren oni berea emotea, 67'gn. urte onetan gure mutilleri leku egiñaz.

Guk gure aldetik auxe diñogu:

Monsieur Levitan'ek aintzat artu da-giala arazo au.

## SALARI



Loroño (3), Bernardez (2), Barrutia (1)

Txirrindularien arteko bazkal-ondo bat dozu au. Bertan ikusi daitezke Loroño (3), Bernardez (2), Barrutia (1). Baita be or-txe dozue «Salari», Arrese-Beitia'ren olerki ori esaten:

Nire anayak  
bat izan beti  
euskaldunen  
siniskeretan.

Bat izan zure  
uste eretxi gozog  
eta asmuetan.

Fede bizi bat  
baldin badogu  
biotz eta arimetan  
oraindik bakez  
biziko gara  
mendi aitz eta ibarretan

Orain aldi andirik ez tala jakin genduan, ta bai atsegin andia artu be, zelan Larruzea'tar Andoni «Amorebieta IV», gureztat beti Andoni, Kirol Ordaritzza Errikoak edo Delegación Nacional de Deportes'ek sari-garri domiña, medalla, emoteko baieztua izan dala Madrillen, ta ori jakiñik, alegin-du naz, Adoni adiskide zintzo ta euskal-tzale jatorragaz aurkituten, aldizkari onerarako itaun batzuk egiteko asmoz. Egia esateko, etzan ain gatx bera aurkituten, sarritan dabilkelako Galdakano'n, bere sa-leroste arazoetan. Ikusi nebanaz batera zo-riolak emon da esan neutsan:

—Benetan poztu naz, Andoni, egin dau-tsuen bereizkun edo distintuñuagaitik; ja-kitun zengozan zelan emongo dau tsuen sa-ri-garri domiña ori?

—Jakitun nengoan zelan Bizkaï'tik Ma-drillera bialduta egoan nire pelotaritzako edestia, baña enekian emongo eusten ala ez; orregaitik, poztasun andia artu dot iz-par ori jakin dodanean.

—Andoni, lenago esan bear neutsun. Zu-tzaz zerbait idatzi gura neuke ANAITASU-NA euskerazko aldizkarian, bere irakur-leak jakin daien nor eta zetarik pelota-ria izan zaran, eta orretarako itaun ba-tzuk egingo neuskizuz erantzun nai ba-dozuz.

—Bai, ta pozik, batez-bere euskerazko ziparringitarako izan ezketiño —erantzun eustan Zornotza aldeko euskera jator go-xuan.

—Ba-dakit gaur Zornotza'z (Amorebieta) bat eginda dagon Etxano'koa zarana, ze, ia jaioten ikusi zaitut-eta, baña nai bado-zu erantzun, esango dogu zenbat urte dau-kazuzan, gure irakurleak ikusi daien ze aro onean egin bear izan dozun alde pelo-taritzatik.

—Ba, orain ogeta amairu urte jaio ei nintzan zeuk ezagutzen dozun Etxano'n, baña ba-dakizu erri au ta Zornotza alka-rren ondoan dagozanez, «Amorebieta IV» izen ordeaz ezagutu nabe, nire aita ta osa-bak legez, orreïn urrengo.

—Noiz eta non asi ziñan pelotan joka-tuten?

—Ia jaio nintzanean, ja, ja, ja, ze ume-txutatik Bilbao'ko «Euskalduna»n egon nintzan neure aitagaz-da... Baña benetan jokolari lez, Donosti'a'n jokatu neban le-nengoz Inza II lagun nebala, «Begoñes VII eta VI» anaïen aurka, amar urtedun nin-tzala; eta bizibide lez edo profesionaltzan, Euskalduna'n amazortzi urte neukazanean.

—Urren zein pelota tokitan jokatu dozu?

—Pelotatoki askotan, gelen Euskaldu-na'n izan bada be; Donosti, Iruña, Bar-tzelona, Mexiko ta Madrillen, jokatuteari itxi arte.

—Ba-dakit gazte zengozala jokatutea itxi bear izan zenduana, —orain be gazte za-goz-da— noz arte jokatu zendun?

—Orain lau urterarte; Madrillen sasoi-tsu jokatuten nengoala gaxo zatar batek oratu eustan eta itxi egin bear izan neban pelota

—Bai, benetan izan zan tamalgarria pe-lota-zalientzat eta pelotarentzat be, zuk ain gazterik joko kementsu ori itxi bearra. Zeintzuk izan dira euki dozuzan aurkalari edo kontario gogorrenak pelotan?



AMOREBIETA IV ta OROZ I

—Oroz I ta Begoñes VII.

—Eta zeure aldiko onenak?

—Esan dodazan blok.

—Eta zegaitik ez zeu, Ludian agertu dan pala-pelotari onena zarala esaten baeb-en pelotazaleak?

—Ori, orreik pelotazaleak esan bearko dabe.

—Ogibidetzat legez jokatutea itxi zen-duanetik, jokatu dozu iñoz?

—Bai orixe! Astia daukodan guztietan, osasungarria dalako.

—Orregaitik zagoz sendo ta lerdin. Ze-lan ikusten dozu, aldi onetan, palazko pe-lota?

—Guztiz illun, txarto. Toki gitxitan baño ezta jokatuten.

—Orain be Madrid, Bartzelona ta Me-xiko'n jokatuten dabe.

—Bai baña, uriburu orreitako pelota-to-kietan jokatuten dabenak be, emengoak, euskotarrak dira; angoen artean pelotari gitxik urtetan dau, eta orregaitik dago gal-tzeko ariskuan emen, Euskalerrian ezta-lako jokatuten aldi onetan. Palazko pelota jolasa, beste pelota jokera guztiak legez, emen euskotarren artean jokatu bear da, geurea dalako, biotz barruan daroagulako guztiok; pelotari urtetako benetan zalea izan bear dalako. Euskalerriko pelota to-kietan orain baño geiago jokatuten ez-pada, laster galduko da gure palazko pe-lota-joko garbi ta kementsua.

—Alantxe da, Andoni. Eztakigu gure abendakoak, gure aurreko euskaldunak sortua dan ala ez pelota-jokoa, baña daki-guna da, geureak sortua ezpada be, geure-tzako egiña lakoa dala, ta geurea legez jagon bear dogula. Amaitzeko azken itun bat, Andoni. Kaltegarri dala uste dozu, ikaskintza ta beste eginkizun sakonak on-do betetako?

—Nik eztaikit orretara iñoz pentsa lei-ken, ze, edozeiñek daki kirola neurritz egin ezketiño osasungarria dala, batez bere gaz-tearentzat, gorputz sendoagoa ta lerdena-goia lortuten daualako. Eta ba-dakizu zelan dan esakera: «Gorputz zindoan, arima gar-bia». Niretzako beintzat, ezta izan eragoz-pena kirola beste edozein eginkizun bete-tako.

—Ni be orretan nago, Andoni, ta orre-tara esango deutset nire irakurleai.

Altuna'tar Josu  
(Basa-Jaun)

Danok dakigu —arraintzaleak batezbe, eta Euskalerriko portuetan bizi diran guztiak— bokarta edo antxobea bere kosteran arrapatzen dana. Kostera ori udabarrian izaten da: San Jose egunetik asita maiatza amaitu arte. Orduan agertuten dira gure Kantauri itxasoan, neguko uiolak oraindiño ondo garbitu barik, bokart gorriak. («Gorria» deituten deutsoe arraintzaleak arrain pilloari, arrain maseari).

Baiña beste bokart kostera txiki bat be ba dago. Inportantzia gitxiagokoa: neguko bokarta. Onen goraberak aztertuko doguz gaur.

## Noiz asten dan

Udabarriko bokartak bere joan-etorriak sasoi konkretu batean egiten deusuz, len esan dogun lez. Artez esateko, ondo ez dakigu joan-etorriak egiten dauanentz. Neguko edozein saioan agertu leiteke. Edo... agertu ez.

Udan kosta ertzean arrapatzen dan bokart txikia —egalu-zetako karnada bizia izan daiten— eta neguko bokart txikia, bat ete dira? Ondo ez dakigu. Udabarriko bokart ederraren kumeak ete dira? Arraintzaleak eta iktiologoak ez dakie.

Orregaitik, ezin da bokart onen joan-etorriaren barririk emon. Arraintzaleak ez dabe jakiten, negua datorrenean, bokartik agertuko dan ala ez.

## Bizkaitarrak eta Giputzak

Neguko bokartak ez dau balio fabrikarako, kontserbarako. Freskotako bakarrik balio dau. Eta orretarako, ez da bear bokart asko. Asko arrapatzen bada, prezioa bera doa, eta arraiñurun fabrikarako baiño beste biderik ez dauko.

Beste aldetik —bizkaitar arraintzaleak diño— udabarriko bokartari eta udako atunetako karnadeari kalte egiten jako, espezie batekoak dira-ta. Obeago da, neguko bokart au arrapatzea debekatu, galera, beda ipiñiaz.

Giputz arraintzaleak barriz, ez dauke eritxi bardiña. Espezie diferenteak dirala diño, negukoa eta udabarriko bokarta. Eta kupoa ipiñiaz, saltzeko beste arrapaturik, mariya politik egin leitekezala, neguko utsunea betetzeko.

## Akorduak

Urte guztietan daukez bizkaitar eta giputz arraintzaleak eztabaida gogorak bokart onegaitik. Baiña azkenean, akordu batera irixten dira. Sanandereko arraintzaleak be, akordu onekatzat batuten dira. Aurten, onek dira akorduak:

Kupoa: 6.000 kilo eguneko.

Ixasotea: Astelen eguerditik bariku arratsalderarte.

Zapatua eta domekea, jai.

Prezioak: 3 pta. kontserbarako, eta 1,75 pta. urun fabrikarako.

Akordu onek, ikusiaren gaiñera aldatu leitekez. Bestela, San Jose egunerarte balio dabe. Udabarriko kosterea asi arte.

Bermeo, Zezeilla.

Artza

ANAITASUNAren 144 zenbakian, M. Karmen Ibarra'ren idazlan onurakorra argitaratu zan eta berari erantzuten noa. Gaztearen gazte sasoiak banatuko doguz lenengo. Joan zan igandean Yurre'n egon nintzan bertso entzuten eta gai askoren artean bat auxe izan zan: Euskalerrian beste aberri askotan baiño beranduago ezkontzen dala jendea. Zar; ogeta amar urtetik gora geienak. Beraz sasoi onetako mutilla zarrada bada, ogeitik ogeta zortzirakoak sasoi onkotzat artuko doguz eta ogeitik berakoak gaztetzat. Ta ona emen nire ekifianen sustraia: Sasoi edo talde baktotxa ete da berari jagozozan problemak atontzeko? Ezetz esan bear. Irugarren grupokoak, izan leiteke baletz; bigarrenakaz dudana nago ta lenengoak ezetz esan bear.

Zegaitik?

Gure nortasuna osotzeko iñoren esperientzia bear dalako. Gazteak ikasi egin bear dau, bai liburu, alkar autu, bizi-tzan eta etxean, eta bera baiño zarragoak emon bear deutsoe ikasbidea au. Gizona gero ta jakitunagoa da; lengo ogeta amar urteko jakintza (orain amabost edo ogei urte) oraingo amazortzikoagaz paretu leiteke, baiña alan be, jakintza gaiak zarragoenak dira beti. Beraz, gazteen problemak, bigarren sasoiakoak atondu bear ditue ta irugarrenekoak, bigarrenenak.

Sasoi edo mailla onek, gero ta estuagoak izango dira ta baleiteke urte batzuk barru, ogei urtekoen irakasle, ogeta bi urtekoak izatea, baiña beti zarragoak. Paternalismoaren arerio amorratua naz. Gaztea, geiago entzun bear da; arduradun jarri ta konfiantza emon bearrean dago, baiña formaziñoa, kultura, gizatasuna ta nortasuna, iñok (zarragoak) ezarri bear deutsoz ondiño.

Etorriko al da sasoi edo aldi baktotxa euren maillakoak zuzentzeko garaia.

Deunoro Sarduy

(9gn. orrialdetik)

104 URTE

Amaka aldiz ibillia da Amama Eskola oiñez, Bilbo'ra eta edonora. Bilbo'tik Mañu'ra 27 km. dagoz eta zenbat bidar ioan-etorria oiñez egin dauan Iainkoak daki. Gau erdian urtenda, surteko autsa saltzen Bilbo'ra ioana da. Orduan surteko autsa «detergente» onena zan.

Amamarentzat egunik baltzenak azkenengo Españagaz izan gendun gudakoak dira. Negar egin barik ezin dauz eguno gogoratu. Eleuke barriro olakorik ikusi nai. Sollube'n iazoz be andiak iazoz ziran-ta. Zenbat gazte eder galdu zan mendi onetan.

Urriñen ioan danean be, Amamak ez dau Aberritik iñoz urten. Maiteen dauzan tokiak Urkiola ta Arantzazu. Ondiño sarri dauz gogoan Amamak Arantzazuko meza ta eleizkizun ederrak.

Artiaga'ra be urteoro ioaten zan. San Polikarpo'ri osasun eske, garriko miñik ez izateko. Irurok izan dauz Amamak bere santu laguntzailleak. Sinismenez eskatu be ta...

Gaur be amaka otowitz egiten dau emakume onek. Zenbat amarreko garautzen ete dauz, eskuan beti bere errosarioa daua.

Guztiekatik eskatzen dau, batez be bake on bat izan daigun.

Onek dozuez euskaldun zaarrenaren barri batzu. Eguno erderarik eztau egin gure Amamak. Asko bizi gura badozue ez aztu au; gu ez gara 104'ra elduko, baña euskera egiten badogu beti, Amama onen antzera, Euskalerria ezta ilko.

Garitaonandia'tar Gotzon



# NOIZ ARTE OLAN

Itaun auxe egiten dau ANAITASUNA'n, 144'garren zenbakian, 6'garren orrialdean, F. X. Kintanak, euskeraren galtze osoa edo nagosia Eleizaren bizkar gañean iaurtiaz.

Eztot esan nai emen, eleizgizonok be oso erru bageak gare-anik, ez. Gai onetan gogoratu neinkezala dirudit Jesukristoren itzak: «Oso garbi legokenak, iaurti bei lenengo arria». Baña ez erru osoa, ez aundiena daukonik be eztot uste. Eleizak elizgizon aupagarriak euki ditu euskera lantzean: Axular, Salbatore Mitxelena, Mogel, Etxepare ta abar ta abar aitatuten dozuz. Abar ta abar baño zerbait geiago direala uste dot nik Uriarte, Domingo Agirre, Azkue, Eguskitza, Ibargutxi eta beste asko ta asko

«Orixe» zanaren agotik sarri be sarri entzun neban auxe: «Nai dana esango da eleizgizonakatik, baña onixei eskerrak ta oneixek idatzitako liburuetan ikasi bearra daukogu ikasi nai badogu».

Eta zuek, errigizonok, zer egin dozue errian? Zer, erriko-etxe edo Udal-etxeetan? Emen artutako erabagiak euskeraz idatzi ete dozuez? Zer egin dozue Irakastoletan? Eleizgizonak eleizgaiak landu dituen neurrian eta alaberan, landu ete dozuez Zenbatizki (Matematika) eta beste onen antzeko galak?

Oso bidezkoa deritoxo gaztediari onu inpernutar au emotea: «Gauzak zuzendu ta arteztu arte eleizak utsik geratuko balira...» Entzun egidazu odol otzez. Eleizan baño euskera gitxiago egiten da milla bider erromerian, dantza nastu leketan, antzerki ta zinemetan. Zegaitik ez deutsezue esaten gazteai ikuskizun onetara be ez ioateko?

Ez, mutil, ez. Zuk aurkeztu dozun gaia ezta zuk uste dozun baizen ain erreza ta argia, illun eta auzi-orraziz betea baño. Eleizgizonen artean asko gagoz euskera eta euskera utsa bakarrik erabilli nai geunkenak. Baña orretarako gaztediak bere buru-belarrietan eztarabil jolas, ikuskizun ta kirola baño. Erri osoak be gitxi gora-bera beste onen beste. Onen elburua dirua da. Piñuak emoten dau; ba, piñua sartu, nai ta beste landara batzuk alaiago, apañago ta begietarako ederrago izan.

Ni ona etorri nintzanean etxe bat be utsik ez egoan niretzat. Orditik ona asko ta asko ioan dira baserriak itxi ta batzuk uri andietara, beste batzuk erbestera. Etxe uts oneik zelan baitean hete dira beste erbestetar batzukin. Kontixu eurok dira nagosi. Abadearena da errua emen erdera erabilten bada? Abadearena errua, euskaldunak diruz bete badira? Arrokeriz bete badira?

Mesedez, ez egizuz, ba, gauzak begi bakar bategaz ikusi, eta gitxiago oraindik gazteai olako kontseju txarrik emon. «Gure siñesmenaren erro ta sutrai eztira iñoiz izan abadeak eta euren egiñak eta bizitza, Ebanjelioko siñiskaiak baño». Onegaitik, erlejiñoko gaietan barrura sartu baño len nai ta naiezkoa da oneik sakon sakon ikastea. Gure gaztedia ezta zoritxarrez ondo egongo, baña ezta izkuntzaren errua bakarrik. Izkuntza bat bakarrik darabilen erriak be eztagoz obeto, txarrago baño. Izkuntzaz gañera beste sostropo asko daukoz gaztediak: griñak, kirolak, ezkongaletako artu-emonak, erromeriak, ikuskizunak, ordikeria, eta abar eta abar. Ezta ba zuk uste dozun baizen gauza tolesbagea.

Euskera «moda» balitza, neskatilla guztiak euskeraz asiko litzakez. Euskeratik dirua baletor, euskaldunak, mendietan piñuak sartu dituezan lez (naita abadeak ezetz esan), euren etxeetan euskera sartuko leukee.

Norbait nabaitzen danean bere burua urkatu bear daualata, azkenez beragaz urtetan dau. Euskalerrria irudituten jat, bere euskera erabilli naiezagaz, euskera il nairik dabillega. Olan dabilen erria, abadearen alegiñak gora-bera, ziur ilko da. Nai bei goiko Jaun onak ni oker gotea.

Lemoniz, 1967 zezeilla.

JOSE ANTONIO OAR-ARTETA



Eskolastika Mendizabal, «Mañuko Amama» 104 urte betetako egunean

## 104 URTE

Euskaldunik zarrena Bermeo'n bizi da. Bertako auzo baten. Bermeo'k inguruak auzoz beterik daukoz: Agerre, Almike, Arene, Artike, Arronategi, Mañu, Matxitxako, Ondartza, San Andres eta San Mikel. Geiago balitz, parkatu deistela.

Auzo oneitan parroki bi dagoz: Almike ta Mañu. Zaarrena Almike ta Mañu barriena. Parroki onetakoa dozue agertzera noatzuen andratxo au.

Eleizaren ondotoxoan, Sollube mendiaren bizkartxo baten, «Irezabaleta» etxean bizi da, iaio zanetik arrezkero. *Eskolastika* dau izena, Zezeillaren 10'ekoa dalako. Abizenak: *Mendizabal* eta *Imatz*. Il onen 10'ean bete dira 104 urte amonatzu au iaio zanetik. Orregaitik bera euskaldunik zaarrena dakigunetik. Bilbo'n ba-da zarragorik, baña euskaldunik ez. Almika'ko eleizan bateatu eben 1863'an; antxe dago bateo-agiria.

Osasunez ondo daukagu *Eskola* (olan deitzen deutsoe erri-tarrak). Egunero iagiten da, bera garbitu ta apaindu, beste iñor barik. Zentzunak ondo, gazte askok baño argiago. Buruaren iaube da; ikusmen argiduna; belarriak apur bat lo, bestela... ondiño oraintsu iosten ebillen.

Ogeta bost urteko zala ezkondu zan. Zortzi seme-alaba izan ebazan, 7 bizi iakoz. Begoña'ko Refugio'an dauko alaba bat monja. Amabost loba, ta 6 birloba bizi iakoz.

Amama *Eskola*'ren bizitzan mündu au asko aldatu da. Jazoera gogorak ikusi bear izan dauz; alan be gaurko bizitza atsegingarriago dala diño lengoaren ondoan. Aurrerakuntzetan maitagarriena beretzat tximist-argia da. Argi-indarrik eztan egunetan lengo kursuluak gogoratuta negarrari emoten dautso.

8gn orrialdera

# Militarrak, Prailleak, Abadeak, Neskak Euskeraz. Nun...

## Pumanieska'n

Irakurleok, ez dakit zer uste izango dozuen idazburu ori irakurrita, baña, egia da, aitaturako «Sala de Fiestas» orretan, lengo eguneko arratsalde batean, jarri lasai aulki batean eta ordu pare bat sekulako poztasunean igaro nebazala.

Orkestina taldea goi-samarrean: piano, bateria, saxofoi eta gañetikoak, jo ta ke ziarduen.

Mikrofono aurrean abestuten, buruko uleak bekokitik bera aizetzen ebazan mutil bat; gerotxoago, atze-aurrez geldirik egon eziñeko neska bat...

Ondoan, praille matralla gorritxo bat, neska gona-motx bateri konpasa markatzen, eta beste apaiz dotore bat klarinete jotzaillearen aldamenean; pianoan, urrezko botoi ta guzti, zuzendari, militar bat.

Eta guztiok euskeraz, euskeraz abesten, berezkotasun andienagaz, beti olantxe izango balitza lez...

Or, emen, erdi illunetan, gure moduko entzule batzuek bananduta.

III EUSKAL ABESTI BARRIEN SARIKETA'ko saio bat besterik etzan.

Eritxiak?

Euskaldunok ez dogula izango zegaitik lotsatu «Festival del Mediterráneo» eta «San Remo'ko sariketa» orreine alboan.

Era askotako abestiak: zarretaruntz jotzen dabena, neurkada barriakaz, garri, anka eta eskuak ziri-zara erabilii eragiten dabezanak; melodikoak, gitxiagokoak...

Baztertuta geratu diranak ezagutu ez arren, aukeraturtakoak mailla batean entzungarriak eta naikoa izeneko diralakoan nago.

Beste alde batetik, banakako abesti oneikaz, III SARIKETA antolatzea, Euskalerrriaren aldeko pauso onuragarri bat izan dalakoan nago. Zalantza barik, abesti oneik beingoan erriaren agotan ibilliko dira ta benetako aberasiasun bat izango dogu.

Baita be, izango dira, gure artean, ain errez sortzen diran bizantinismoak, eta ganora bako eztabaidak: «Adan'ek txilborrik euki ete eban edo ez» en modukoak; zarrak ala barriak, metarikoak edo bestetarikoak...

Lengo zarrak orduko barriak ziran, eta gaurko barriak biariko zarrak izango dira... (Begiratu nire belarri ostera...!) Izakera bertan eztago apurtzerik, apurtza ori geure irudimenetan sortzen dana besterik ezta.

Ibai baten antzera da: Ibai orrek, leku baten ZORTZIKOA izango dau izena, bestean HABANERA, onuzago FOX eta arutzago ROLL...

Bear ez doguna da, urgeldia eta ustela: urgeldiak, egonean egonean, azkenean, ugaraixoen «kra, kra, kra» abesti zarra besterik ez dau sortzen. Mendietan jaiotako ur biziak barriz, goi aldetan gozo, meloditsu abestuko dau, errietako zubipetik igarotzerakoan indartsuago, eta



Pumanieska'n. III Euskal Abesti Barrien Sariketarako saio bat egiten

itxasoruntz bestelako bakezko eresi bat izango dau... eta bata bestearen osotasunean dago jarraipena, iraupena ta bizia.

Arratsaldeko laurak izan barik, gabeko amabiak izan... eta argi illuntxoagoaz, eta ba-espada be, prailleak eta militarrek urrintxoago eta... zenbat pozago egongo nitzake abesti orreik entzuten neuk dakidan laguntxo bategaz...

San Anton'go euskal meza ondo dago, baña Pumanieska, Kapri edo Seis Estrellas edo Arantzazu'ko euskal dantzak be ez litzakiguz bape txarto etorriko... Eta ori, askontzako, ezin egin izan dana: EUSKERAZ ETA PEKATU MORTALA!

Artu daiguzan beintzat aletin barri oneik, gitxienez, aurrerakuntza, bizi-nai bat lez eta euskaldun jarraipenaren ezaugarri bat legez. Ez dogu beingoan lortuko, telebistaz eta munduan zear izen andiko abesti edo dantzaren bat sortzea, baña gaurkotasunezko jokabideetan, Euskal-erriak agertu bearra dauko. Alakoren batean, nok daki...

Beste gauza bat oso pozik ikusiko neukena da: Antxe ordu pare batean, saio txiki batean, militar, praille, orkestina eta neska gazteak, euskeraren alde arduratuta ain zintzo ikusi nebazan legez, orretaraxe, ez minutu batzuetan bakarrik, egunero baiño, alkatuta alegiñak egiten, beste arlo guztietan ikustea:

Prailleak konpasa eroaten? Ba, prailleak konpasa eroaten. Neskak abesten? Ba, neskak dantzan eta abesten. Militarrak pianoa jotzen? Ederto! Ba, militarrek pianoa jotzen. Gobernadora eusko ikastolak zabaltzen? Baita, Gobernadora eusko ikastolak zabaltzen. Gotzaiña bedeinkatzen? Obeto ezin. Gotzaiña bedeinkatzen. Monjak euskeraz irakasten? Itzelean! Gu soñu jotzen? Ba...

Pumanieska'koa, zoritxarrez, saio txiki bat besterik etzan izan... eta beste azkenengo orkestaziño ori... amets bat eta «milagroa» gañera.

Pakomio

# AURTEN, BIZKAITAR ASKO

## SARITUEN ARTEAN

Euskal espiritu sortzalea lotan egon da urte azken oneitan. Olan, sariketak antolatutuen ziranean, bai nobela zala, bai teatroa, bai abesti edo dantzak, lan gitxi bialduten ziran.

Orain, Euskal Abestiaren III Sariketan gagoz. Lengo bietara, lan gitxi, ta ia guztiak gipuzkoarrak egiñak. Non ziran bizkaitarrak? Lotan, aingeruakaz amesetan? Ez, ameslari jaunak. Euskera zabaldu gura badogu, euskal espiritua piztu, guk egin bear dogu lan. Guk, eta emen. Kanpotik, itz politikak baño ez dira etorriko. Lana, guk egin bear dogu emen.

Augaitik, asko poztu nintzan yakin nebanean Euskal Abestiaren III Sariketara 132 abesti barri bialdu zirala. Asko dira, benetan. Asko, eta onak. Eta gañera, gure pozarako, bizkaitar egille asko.

132 abesti barrien artetik, 6 izan dira aukeratuak, lau konziertoetan abestuteko. Ara zeintzuk diran euren izenak, eta egiileenak:

«Ames egin dot», Angel Aulestia ta Agustin Zubikarai'renak, biak Ondarrutarrak.

«Bilbo'ko Illargia», Marilu Ormilla'rena, Bilbotarra.

«Elgorria izango da?», Regina Arrola'rena, Bilbotarra.

«Garbiñe». Tomas Garbizu'rena, Donostiarra.

«Lekeitio», Eusebio Erkiaga'rena, Lekeitiarra.

«Txoria Kaiola'n», Felix Ibarrondo'rena, Oñatiarra.

Sei abesti oneik, esan dogunez, lau konziertoetan abestuko dira. Ikusi emen non izango diran, eta noiz:

Donostia'n, **Victoria Eugenia** teatroan, otsallako 19'an, goizeko amabietan.

Iruña'n, **Gayarre** teatroan, otsallako 26'an, eguerdiko amabietan.

Gazteiz'en, **Guridi** teatroan, martiko 5'ean, eguerdiko amabietan.

Bilbo'n, martiko 12'an, **Coliseo Albia'n**, goizeko amaika t'erdietan.

Sariketa au **Coca-Cola** ta **Fanta**'ren konzesionarioak ordaintzen dan, eta Diputaziño ta Aiumtamentu batzuk eskeintzen dabez sariak.

Abeslariak, oneik izango dira:

Lurdes Iriondo

Begoña Idoyaga

Benito Lertxundi

Juan Libarona

Nino Remuñan.

Aurtengoa ez da orfeoitarako. Aitatu doguzan sei abeslariak, banaka, abestuko dabe kanta bakotxa, ta eurai laguntzeko, orkesta bat egongo da, Juan Cordero'ren zuzendaritzapean.

Zelakoak dira sei abesti oneik? Iru, ritmo ariñak, gaur mundu zabalean dabilzanan antzekoak. Bi, protestako abestiak, eta bat, «Lekeitio», himno baten antzekoa. Seirak, ederrak benetan, bakotxa bere klasean.

Kontuan artu, entzuleak, euren botoakaz, sarituko dabezala sei abesti oneik. Lan gatxa, benetan, baña bearrezkoa. Jakin bear dogu zein dan erriaren gustoa. Erriaren gustoa...

Gaur goizean, Euskaltzaindia'ren batzarretik urtetan, adiskide bateri auxa esan dautsat: Erriaren gustoa zein dan jakin bear dogu. Eta berak erantzun: «Erriaren gustoa?». «Ez, Erria edukau egin bear da gusto on bat euki dagian.»

Alde batetik arrazoiak dauko. Ainbeste edozelango musikak entzuten dira irrati ta telebisiñotik, ez dakigula erria noraño egongo dan gustoa galduta. Baña derrigorrezkoa da jakitea erriak zelan pentsetan dauan gaur. Ezer egitekotan, ezer lortu leitekena, oñak lurrean sendo imiñirik asi bear dogu. Gauza bat da guk gura gendukeana, ta beste bat da egiz zelan dan, errealidadea zelakoa dan.

Euskal Abestiaren III Sariketa martxan dago. Laster asiko dira konziertoak. Aurtengoak, guztiz interesanteak izango dira. Melodia utsa, errez abestuteko modukoak. Asko zabaltzen ba dira, euskerari mesede andia egingo dautsoe.

A!, eta esan daigun konzierto guztitan, presentadore bi egongo dirala: bat, euskerazkoa, Mari Karmen Ibarra. Bestea, erderazkoa, Franzisko Xabier Garcia.

Iru neska konziertoetan: bi abestuten eta bat itz egiten. Irurak, gaurkoak eta benetan galantak. Eta irurak euskeraz egiten. Ia ori ikusita, ainbeste fustebako neska euskaldunak euskeraz egiten daben. Ba da ortarako ordua.

Xabier Gereño

## ZEGAITIK EZ ULE LUZEAK

Título au irakurtean, bat baño geiago arrituko zan. Zelan eta euskeraz ule luzedunen alde?

Gure artean, askorentzat ule luzedun bat ikustea, edo bizardun gazte bat, edo prakadun neska bat, edo minifaldadun bat, deabru berbera ikustea da. Dantza-etxe edo kabaret batera sartzea, pekatu.

Aurretik argitu bear dot nik ez daukadala ule luzea ez bizarra, baña eroateak ez leuskit burukomiñik emongo.

Kristiñau askorentzat erlejiñoa kanpoko itxurak dira. Seigarren agindua bete, ta beste batzuk ez ainbeste. Gure izaieran norma batzuk jarrita dagoz, eta euren artetik goaz bizitasun barik, gatz barik.

Zegaitik ez ule luzeak? Zegaitik dira baztertutekoak bizar luzedunak? Ba-dago arrazoirik?

Guk ule laburrak eta bizarra ebagita daroaguz. Zegaitik? Guztiak olan doazalako. Ez dago beste arrazoirik. Guztiak ule luze ta bizar luzeagaz ibilliko balira, geu be olan ibilliko giñake. Onek esan gura dau, norbaitek norma orreitatik urtetan badau, besteak baño personalidade aundiagoa daukala, nortasun berezi bat. Ez da gizon-masa. Ondo ikusita, norma orreitatik urtetan dabenak, gu baño ausartiagoak dira. Gu gara masako gizonak. Gauzak geiago estutu ezkeru, gu gara kobardeak.

Baña ez neban ainbeste esan gura. Naikoa da adieraztea, normatik urtetan daben gizon orreik, orregaitik bakarrik, errespetagarriak dirala, niretzat beintzat. Eurak, indar naikoa euki dabe, kemen naikoa, norma orreitatik urtetako, masatik urten eta euren nortasuna adierazteko.

Neskakaz, andren modakaz, bardin pasetan da. Askok uste dabe moda barrira doazan neskak eta andrak, ez dirala euskotar onak. Nire ustez, oker dagoz. Eta au olan esateagaitik, idatzi neban antzerki baten —orain «Txinpartakoak» euren repertorioan dauken teatro lan baten—, prakadun neska bat ipiñi neban, euskaltzale fiña zana.

Nire ustez, Euskal Erriaren aurrean, euskalzaletasuna dalata, moda bat edo beste bat jarraitzeak ez dau ezer esan gura. Bardin izan leitekez, eta dira, euskaltzale, bizar luze edo bizar laburdun gizonak. Bardin prakadun edo gonadun andrak. Bardin gona luze edo gona laburdunak.

Kalte andia egingo deusku, euskalzaletasuna moda bategaz batuten badogu. Euskalzaletasuna moden ganetik dago. Bai jantziak dirala, dibersiñoak, pentsakerak eta abar. Euskalzaletasuna da gure Erria maitatutea, euskeraz egitea, euskal kultura zaintzea. Eta orretan, ulea olan edo alan eukiteak, ez dauko inportantzirik.

Ba-dakit au irakurriko daben guztiak ez dirala nigaz bat egongo. Nik, ipiñi dodaz nire eritxiak. Orain, emon zuek zuenak.

Xabier Gereño

Zer diñostazu, adiskide? Eztakizula Sopelana danik be? Ba ara, beingoan igarri dot ortik, aberatsa ez zarana. Aberatsa baziña iakingo zeunke. Leku onak non dagozan areik ondo dakie. Sopelana orretariko leku on bat dozu, aberatsak ondo ezagutzen daben orreitarikoa.

Erri andia ezta, baserri bat. Baña itxaso dauko, ondartzza ederra be bai, ta itxaso ta mendia dagozan tokian amai-ka lagun ba-da udan. Auxe dala-ta, orain esango dautsudana iazoten da Sopelana.

\*\*\*

Udaldian 7.500 bizilagun dira, urteko beste 9 illabetetan 2.110 baño ez. Udagoienetik aurrera artzen dabe arnasa bildur barik Sopelatarrak, arnasa ta erriko antza be bai.

Iakiña ba, udan ainbeste erbesteko etorteak asko nastatzen dau erria. Txarrena dana erriko diranak aztu egiten dira euren nortasunaz, ta kanpotarrak lez asten dira iazten, iaten, ibiltzen, barre egiten, eta berba egiten be bai. Itxas-ertze-ko erri geienetako gatx zoritzarrekoa auxe da.

Kanpotik datozanak dakarren ona geuregandutea egoki da. Baña areik egin dabelako bakarrik edozer egiten asi, ta bako- txak geure izakera guztia aldatutea «tximiñokerian» iaustea dala esango neuke.

\*\*\*

Len esandako 2.110 sopelostarretik, 650, betiko edo, bertara etorri diran erdaldunak dozuz. Oneik kenduta, bestiek, Sopelan iaioak, 100'tik 80, euskaldun dira ondiño, zorionean.

Guda osteko urteetan asko galdu zan euskera Sopelana'n. Ikusi bestela au:

25 urtetik gorakoak guztiak dakie euskera.

25 urtetik berakoak, ulertu egin arren, ondo iakin ez ta lotsaz erdaldundu egin iakuz. Bildurrak eta itxitasunak kalte andia egin eben sasoi aretan.

Gaur euskera arlo au obeto dagola esan geinke. Sopelostarrak eztire tentelak eta ba-dakie euskaldun ezin izan leitekela euskera iakin barik.

Onegaitik 14 urtetik onantze-koak, 100'tik 25 inguru euskaldun dire. Gaur gurasoak ardura geiago dauke geure berbeta irekasteko.

\*\*\*

Zazpi eskola dagoz erri onetan, 230 umentzat. Amar urtetik gorakoak ezer ikasiko badabe, Bilbora edo Algorta'ra ioan bear dabe. Oker andia.

\*\*\*

Eleiza dala-ta, Zorionak! bertako abadei. Oso ederto barriztau dabe, errikoen laguntasunagaz. Gaurko lege barrietara barriztauta dago: altara erriari dautsola, ormak arri utsez, atsegingarri benetan.

Sopelanak auzo andi bat dauko Larrabastera deritxona. Auzo onetan beste elizatxo polit bat dago, oso barria. (Eleiz onen ondoan igaroten dau uda, etxe apain baten, Eujenio Beitia, Sanander'eko Gotzaiña izan zanak). Sopelanako iaiak S. Pedroak dira. Larrabastera'koak Karmenak.

Domeketan lau meza daukez errian, bi euskeraz eta bi erderaz. Guztientzat aukera.

Bertako abade jaunak zuzenduta, aurtten euskal ikastolatxo bat asi da, kristiñau irakatsiak eta euskera ikasteko. 25 umetxo doaz aurtten, datorren urtean euskera dakien danak, zegaitik ez?

Ogibidez: 100'eko 75, langilleak dire.

» 7, nekazariak.

» 12, itxasgizonak.

Egoteko, iokorako ta edateko 11 taberna dagoz. Sopelostarrak ezingo dabe esan egarri diranik. Pelota-toki bat be ederra dago ta txapelketa ederrak iokatzten dira.


Azken urteotan euskal-iai ederrak be egin izan dira. Olan, zirikaldi guzti orreikaz «Alkartasuna» taldekoen kerizpean aurrera doa eusko-gogoa Sopelan. Baña kontuz gero, euskal-iai egunean brusea ipiñita, ez uste izan orregaz guztiak zintzoak direanik.

Aberatsak, gura balebe, Sopelana ederra, Bizkaiko politenatariko bat izango litzake, baña... Alan be gura dauanak, al dauanak baño geiago sarri egiten dauan lez, Sopelostar zintzoak atzean eztira gel- dituko.

Ondiño otza da, baña udabarrian, kanpotarrak sartu baño lenago zoaze Sopelana'ra, egun ona bota gura badozue.

Ordu guztietan doa tren bat Bilbotik urtenda ber-bertaraño.

Salatari



Sopelana, Bizkaiko erri politenatarikoa